

**EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA OFIZIALAK HOGEITA  
HAMAR URTE EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN.  
ZUHAITZAK EUSKALDUNON SINBOLO  
UNIBERTSITATEAN ERE**

Pasa den martxoaren 5ean ekitaldi akademiko-ludiko berezia ospatu zen Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean, 1979-80 ikasturtean Zientzia Fakultatean abiatu euskarazko irakaskuntza ofizialaren hogeita hamar urteak ospatzeko, jai giro ederrean. Jaialdia bi ataletan banaturik egin zen: lehenik, giro ludikoan, zuhaitzak landatu ziren bertako Arboretumean, eta ondoren, giro serioagoan, ekitaldi akademiko ofiziala egin zen Areto Nagusian.

Ekitaldi akademikoaren aipamen laburra eginez hasiko gara, bertan zenbait hitzaldi labur eman zirela esanez, garai hartako giroa kokatzeko eta orduko protagonista batzuen hitzak entzuteko aukera izanik, hala nola orduko errektoretzako ordezkari gorenaren izandako Goio Monrealenak, bera izan baitzen euskal lerroari bultzada ofiziala emateko ohorea izan zuena. Gaur egungo errektoretzako ordezkariak ere bertan izan ziren, Iñaki Goirizelaia errektorea buru.

Bereziki interesgarria izan zen, laburra izan arren, Karmele Artetxe andereak emaniko hitzaldia, euskal lerroaren historiaren inguruko, berriki aurkeztu duen doktoretza-tesian oinarritua. Hitzaldi horrek ederki argitu zuen garai hartako testuingu-

rua, indar eginez ekimen hura bideratu zuten aitzindarien aipamenean. Eta ekitaldi akademikoaren azken erremate modura, omenezko oroigarria banatu zitzairen duela hogeita hamar urteko ekimen haren bultzatzaileei.

Nolanahi den, ekitaldi akademikoa eta omenaldia kontuan izanik ere, gure ustez ekitaldiari ukitu berezi eman ziona, hitzaldien aurretik eginiko ekimen sinboliko xume bat izan zen: campuseko lurretan eginiko zuhaitz hazidunen landaketa.

Irakaskuntzan ari zaretenok dakizuenek, ikasleengan ereindako haziak askoz ere hazi gehiago ematen dituzten zuhaitzak bilaka daitezke. Horregatik, landare hazidunak aukeratu genituen Arboretumean landatzeko, haziak daukaten sinbologia hori gogoan harturik. Euskal lerroko lehenengo irakasle eta ikasleen artean hamahiru zuhaitz hazidun landatu zituzten oroigarri gisa Leioako campuseko Arboretumean eraiki den monolito txiki baten ondoan. Monolitoa biraketa-zentrotzat hartuta, lurrean espiral bat irudikatuta dago orain, espiral “aureoa”, proportzio aureoa mantentzen duena, hain zuzen ere.

Kurba ireki bat da espirala, etengabe erradioa handitzen zaiona, eta beraz, bira bakoitzean hedadura handiagoa hartzen duena. Horrela irudikatu nahi izan da, duela 30 urte hasi zen esperientzia txiki hura denboran zehar hedatuz eta hedatuz joan dela, eta are gehiago hedatuko dela etorkizunean, infinitutik harago. Espiral horretan zuhaitzak lerro ebolutibo baten arabera daude ordenatuta, zaharretik (*Ginkgophyta*) hasi eta ebolutiboki berriena den eukotiledoneo batekin amaitzeko.

Zergatik, baina, landatu ditugu zehazki horiek eta ez beste batzuk? Irizpide batzuen arabera aukeratu ditugu zuhaitzok. Lehena eta oinarrizkoena izan da, landatuak izango diren zuhaitzek hemengo ohiko negua jasateko ahalmena edukitzea. Dakikezuenek, landare batzuek ez dute izozterik jasaten eta bizirauteko tenperatura minimo aski altuak dituzte. Esate baterako, landare hazidun primitiboenak diren zikadofitek jasan

dezaketen tenperatura baxuena 10-13°C-koa da. Horregatik ez ditugu landatuko, ez luketelako lehen negua gaudituko. Bigarren irizpidea, hau ere oinarrizkoa, komertzialki eskuratu ahal izatea, hau da, erosi ahal izatea eta arrazoizko denbora batean eskuratzea. Hirugarren arrazoia sinbolikoagoa da. Denok dakizuen moduan euskara hizkuntza pre-indoeuroparra da. Behinola hizkuntza preindoeuroparrek azalera oso handia hartzen zuten, baina hizkuntza indoeuroparrekin lehian hedadura galtzen joan ziren, eta, gaur egun, Europan euskara da, hizkuntza indoeuroparez inguratuta, irla modura, hizkuntza erreliktiko modura, desagertzerantz bultzatzen duten indarrei aurre eginez bizirik irautea lortu duen hizkuntza preindoeuropar bakarra. Guk landatuko ditugun zuhaitzetariko batzuk espezie erreliktikoak dira, fosil biziak deritzenak, edota, euskararen antzera, desagertzeko arriskuan daudenak. Mota honetakoak dira lehen hiruak: *Ginkgo biloba*, *Wollemia nobilis*, eta *Pinus armandii*.

Beste espezie batzuk ez daude desagertzeko arriskuan, baina munduan zehar naturan oso leku gutxitan aurki daitezke. Horrelakoak dira gainerako guztiak, batzuk lorezaintza komertzialari esker munduan zehar artifizialki eta beti gizakiaren eskutik asko hedatu badira ere, *Magnolia grandiflora* esate baterako.



Baina unibertsitarioak garen, edo izan garen, neurrian, unibertsalak ere izan behar dugu. Horregatik, zuhaitz-espezie bakoitzaren jatorria eta gaur egungo hedadura oso mugatuak izan arren, bost

kontinenteetari-ko bakoitzak badi bere ordezkaria guk landutako dugun zuhaitz-bilduma horretan. Justu kontrara, munduko bost kontinenteetari-ko bakoitzean badago irlatxo preindoeuropar modura definitu dugun



euskal hizkuntza honi eusten dion populazioaren ordezkari-multzoa. Mundua Arboretumera ekarri dugu, bertan hitz egin den hizkuntza mundu osoan zehar hedatzen den bitartean.

Euskaldunen artean badago zientzia unibertsalari ekarpen handiak egin dizkionik. Ezingo ditugu denak aipatu. Badago bat, baina, landareen munduan bere izen-deiturarekin arrasto oso sakona utzi duena, Ezpeletako lapurtar bat, Armand David izeneko misiolaria, panda izenekoa animalia zientziarentzat ezaguna egin zuena. Bere omenez zuhaitz-genero batek *Davidia* izena darama, eta izen espezifikiko moduan *armandii* edo *davidii* daramaten landare-espezieak kontaezinak dira; agian, “kontaezina” adjektiboa exajeratu samarra da eta “eskandaluzko espezie-kopurua” esatera mugatu beharko ginen. Horrelakoak dira *Buddleja davidii*, *Acer davidii*... eta horien artean guk landatu ditugun *Pinus armandii* (Daviden pinua izenez ezagutzen dena) eta *Davidia involucrata*.

Euskaldunok bost kontinenteetan barrena ibili bagara, eta ibili bagabiltza ere, Hego Amerika da, dudarik gabe, euskal diasporaren kokaleku garrantzitsuena, eta bertako herrien artean Argentina izan da kopuru handienean hartu gaituena. Ar-



gentina eta Uruguaiako panpetan du jatorria landutuko dugun azken zuhaitzak, *onbuak* alegia. Iparragirre eza-gunaz gain, Argentinan bertan bizi eta hil zen Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildarra. Aurten go maiatzaren

zazpian beteko dira ehun urte Argentinan hil zela, eta gure ospakizuna eta bi hilabetera hain zuzen ere ospatuko dute Zizurkilen bere heriotzaren mendeurrena. Otañok bere jaioterriko haritza eta bizilekuko onbua hartu zituen gaitzat “*Amerikako panpetan*” izeneko bere bertso-sorta ezagun batean:

Amerikako panpetan  
Euskal-Erriko lur maite artan  
Jayo nintzan baserriyan,  
Itzal aundiko intxaur arbol bat  
Dago gure atariyan:  
Aren ondotik irten da noiznai  
Maldako gaztañariyan.  
Edo, sagarrik onenak jaten  
Luberriko sagastiyan,  
Arbol tartian bizitu nintzan  
Gazte denbora guziyan.  
Denak utzi ta etorri nintzan,  
Lur au ikusi nai nuan!  
Aritz tantayak, pago lerdanak,  
Nola ez izan goguan!

Orañ arzantzan Ameriketan,  
Arrantxo baten onduan,  
Eguna pasa larrian eta  
Jiraten naizen orduan,  
Nere begiyak gozaten dira  
Aldameneko omb-uan.

Ainbesteraño tristetutzen naiz  
Eremu zabal oyetan,  
Arbolak, mendi eta errekek  
Falta diran zelayetan,  
Non etorri ta eseritzean  
Omb-tzar onen zañetan,  
Edo igo ta ostoa tartian  
Bere adar bikañetan  
¡Ene! ¡Amatxo! Nik nola esan  
Zenbat gozatatzen detan!

Txabol ondoko omb-laztana,  
Maitatzen zaitut gogotik  
Eta biyotza erdibitzen zait  
Joatian zure ondotik,  
Nere burura ekartzen dezun  
Oroimen gozuagatik.  
Zure itxura nai det ikusi  
Ez dizut eskatzen frutik  
Ni emen bizi naizen artian  
¡Arren! ¡jeron zaite zutik!

Nere lagunik maitatuena  
Omb-laztana, zu zera,  
Argatik nator zure kolkora,  
Ni malkuak isurtzera,  
Iduriturik naramazula  
Atariko intxaurpera...  
Beti izango zaitut, goguan,

Bañan joan nai det ostera,  
Euskal-lurreko arbolpe artan  
Nere ezurak uztera.

Diasporako Félix Garci-Arce izenekoak ere haritza eta onbuaren omenez kantu ezaguna idatzi zuen. Abesbatzen zaleak bazarete, ziur gaude ondoko hau ezagun duzuela:

El roble y el omb·  
Viejo Arbol de Gernika  
que al vasco ofreces  
tu sombra grata  
cunde en las bellas playas del Plata  
tu alta virtud  
Y haz que este pueblo hermoso  
que por sus hechos al mundo asombra  
reciba siempre tu misma sombra bajo el omb.  
Cuando en la pampa quiero pensar  
Patria querida en tí  
la vidalita suelo cantar  
porque te siento así.  
Por eso mis zortzikos  
tienen sabor de pampa  
mis lánguidas endechas  
me las inspiras tú.  
Y en tan grata armonía  
siento tranquila el alma  
Porque te canto siempre  
siempre bajo el omb».

Arboretumeko gure landaketa-lekua haritzen artean dagoen soilune bat da. Euskaldunontzat sakratua izan zen zuhaitz horiez inguraturiko seaskan, “mintegian” esatea aproposago litzateke landareetaz ari baikara, landatuko ditugu gure ospakizunaren muina diren zuhaitzak. Beraz, gure espiralaren muturrean haritzetatik hurbilen geratuko den azken zuhaitza

*Phytolacca dioica* “onbua” izateak, haritzek eta onbuak elkarrenganantz adarrak hedatzeak eta, agian, etorkizunean bataren eta besteen adarrak elkar ukitzeak badu bere sinbolismoa. Hala ikusten dugu guk bederen.

Landare hazidunen bide ebolutiboan emaniko urrats garrantzitsu guztiek dute ordezkariaren bat gure irudi espiral horretan. Bost kontinenteetatik ekarri ditugu, eta, aldi berean, beren txokotxoetan bada ere, bizirik irautea lortu duten zuhaitzak dira. Abegi ezin hobea egingo diegu gure Arboretumeko lur gozoan. Eta horrekin sinbolizatzen dugu, halaber, gure unibertsitatearen goiburuko lema den Iparragirreraren esaldi hura: Eman da zabal zazu munduan frutua.

*Jesus Mari Txurruka eta Jose Ramon Etxebarria*  
EHUko euskal lerroko irakasleak 1979-80 ikasturtean